

Finantzaketa autonomikoaren erreformarik ez urtarila arte

Estatu eta autonomietako ordezkariak negoziaketak atzeratzea erabaki zuten

Espainiako Ekonomia Ministeritza eta komunitate autonomoko sailburuak ados jarri dira finantzaketa autonomikoaren erreformarako negoziaketak urtarila arte atzeratzeko. Sailburuek adierazi zutenenez, oraindik ezadostasun nabarmenak daude Estatu eta autonomietako ordezkarien artean.

MADRIL

Negoziaketa hauen bidez, autonomietako Ekonomia sailburuek eta Espainiako Ekonomia Ministeritzak gutxienezko zerbitzuen fondoak, osasun zerbitzuen finantzaketa eta elkar-erantzukizuna fiskala zehaztuko dituzte. Arlo hauetan aurrerapausurik eman ez bada ere, jadanik hiru komisio osatu dira aipatutako arlo bakoitzean behar diren ikerketak egiteko.

Antonio Zabalza Haziendako Estatu idazkaria Macia Alavedra Ekonomia sailburu kataluniarrarekin bildu zen hiru komisioen osaketa onartu eta negoziaketak urtarila arte eteteko akordioa lortzeko. Izan ere, Katalunia eta Extremadurako Eko-



Pujolen ustez Generalitateak ez du presarik erreforma amaitzeko.

nomia sailburuak izan dira Ministeritzak egindako proposamenekin ezadostasun handienak azaldu dituztenak. Zabalzak bilera amaitzean adierazi zuenez, negoziaketetan akordioak ez bazen lortu ere, komunitateen arteko harremanak eta hauek Administrazioarekin dituztenak hobetzen ari dira.

Zabalzaren ustez, urtea amaitu aurretik akordioa sinatzea arrisku-

tsua litzateke Administrazio eta komunitateen arteko harremanak okertu daitezkeelako. Era berean, ikerketak berriro kontutan hartzea egokia dela uste du Hazienda Estatu idazkariak.

GENERALITATEAK PRESARIK EZ

Jordi Pujol Generalitateko lehendakariak adierazi zuenez, bere Gobernuak ez

du inolako presarik autonomien erreforma ekonomikorako negoziaketak amaitzeko. «Generalitateak ez du presarik eta ekonomikoki ere ez du premiarik», zioen lehendakari kataluniarrak. Pujolek esan zuenez, bere gobernuak behin-betiko akordioa lortu nahi du eta komunitate horretan egingo diren hauteskundeetan negoziaketan atzerapena ez dela aipatuko agindu zuen.

Bi zerrenda aurkeztu dira PCEko Komite Federala aukeratzeko

MADRIL

Espainiako Alderdi Komunistak (PCE) bere Komite Federala hautatzeko bi zerrenda izango ditu, bata Julio Anguita idazkari nagusi ohia- ren inguruan osatutakoa eta bestea Julio Paleroren sektoreak aurkeztutakoa. Inoiz ez da gertatu bi zerrenda aurkezteko Komite Federala hautatzerakoan. Sektore ortodoxoak ere bere zerrenda aurkezteko asmoa bazuen ere, azkenean Anguitarekin bat egin eta soilik bi zerrenda izan dira aurkeztutakoak.

PCEren barnean Luis eta Jose Cabo anaiek sektore ortodoxoa osatzen dute, hau da, oraindik bere burua marxistatzat duena. Cabo anaiek Anguitaren zerrendan lau ordezkari sartzeko eskatu zituen alderdiko idazkari nagusi ohia-ri. Dena den, Anguitak bi ordezkari baino ez zizkien eskaintzen eta azkenik proposamena onartzea erabaki dute. Luis Cabo eta Victor Diaz Cardiel izango dira sektore ortodoxoko ordezkariak.

Anguitak, berriz, PCEko kongresuaren gehiengoa berarekin du. Idazkari nagusi ohiak aurkeztutako gestio informea kongresuko ordezkarien % 78k onartu zuen eta Komite Federala aukeratzekoan ere bere zerrendak irabazteko posibilitate guztiak ditu. Anguitaren informea- ren kontra ordezkarien % 5 azaldu

zen. Horiek gehienbat Asturias eta Madrilgo delegazioko partaideak ziren. Anguitak Maastrichteko gailurraz egindako balorapenak kritika gogorra jaso zuten. Anguitak gailur- rarak «huts egin» duela adierazi zuen.

ALDERDIEN FEDERAZIOAREN ALDE

Anguitak kritikei erantzuteko orduan gailur- rarak huts egin duela esatea ez dela oso egokia izan onartu zuen. Era berean, Alderdi Komunistako liderrak pluralitateari eutsi ahal izateko PCE alderdien federazioa bilakatu behar dela azpimarratu zuen. Anguitak Rafael Ribo lider kataluniarrari ere erantzun zion. Riboren ustez, PCEk Europako ekialdeko komunistetatik aldentzeko «kontzepzio organikoaren hausdura» egin behar du. Anguitaren esanetan, Alderdi Komunistak aspaldi hautsi zituen marxismo-leninismoarekin zituen harremanak. Anguitak PCEko Idazkaritza Nagusia uzteko erabakia ez zuen ahaztu. Bere ustez, Valenciako federazioak alderdi moduan osatzeko hartu zuen erabakiak II Asanblada Federalean onartutako akordio- en kontra zihoan eta bera ez zegoen ados komunitate valen- ciarrekin. Kongresuan bildutako ordezkari- en estatutuak eta ideario berria eztabaidatu- tuko dituzte.



JEAN LUC Lagardere Frantziako 'La Cinq' telebista kateko kapital gehiena duen 'Hachette' elkarte-ko buruzagia, komu- nikabide honen etorkizun iluna aurkeztu zuen. Lagarderek zioenez, «telebista katea hil zorian dago» eta lan postuak murrizteko ezarri den «plan soziala» guztiz beharrezkoa da. Plana indarrean jarriaz gero, ia 600 lanpostu kenduko dira, langilego osoaren erdia baino gehiago. 'La Cinq' telebista katean kapitala duen CSA beste elkarte ere bat etorri da Lagardere aurkeztutako birmoldaketa planekin. Dena den, telebista katearen etorkizuna guztiz zalantzan dago.

Bandera espainiarra erre zuten Puerto Ricon

SAN JUAN DE PUERTO RICO

Puerto Ricon bandera espainiarra errez eman zioten ongi- etorria Cristobal Colonen oroimenez eraikitako untziei. Untzi hauek duela bostehun urte Amerikara joateko erabili zirenak bezalakoak dira eta Aurkikuntzaren bostgarren mendeurrena ospatzeko ekitaldi batean hartu zuten parte. Bandera espainiarra erretzea- gatik Magdalena eta Irma Iran- zo gazteak atxilotu eta bereha- la aske utzi zituzten.

Atxilotutako gazteek adie- razit zutenenez, bandera espai- niarra eta estatubatuarra erre- tzeko asmoa zuten, Puerto Ri- coren kolonizatzaileen kon- trako protesta egin nahi bait zuten. Atxilotutakoen ustez, espainiarrek ez zuten eskla- butza eta zapalkuntza baino eraman Puerto Ricora. Ekital- dian parte hartu zuten agintari espainiar eta puertorricarrek poliziaren babesa behar izan zuten, manifestari- en beraie- gana joateko asmoa bait zuten. Protestan parte hartzen zuten manifestari- en bandera beltzak zeramatzaten. Bostgarren mendeurrenaren kontrako protestak 1992. urtean zehar errepikatze- ko asmoa dute zenbait erakunde- k, Amerikan gertatutako sarraski historikoa salatze- ko.

Perun Espainia eta Frantziako enbaxadei eraso egin diete

LIMA

Espainia eta Frantziak Pe- ru-ko hirian dituzten enbaxa- dek atentatuak jasan dituzte. Poliziak adierazi zuenez, bi atentatu hauek Sendero Lumi- noso talde armatuak azken as- teotan Lima hirian egiten ari den atentatu kanpainaren bar- nean daude. Espainia eta Fran- tzi- a dira errefuxiatu peruar gehien kanporatu dituzten bi estatuak eta bai Madril eta bai Parisen irudi txarra hedatzen ari da peruarren artean.

Espainiako enbaxadorearen etxebizitzaren ondoan dina- mita karga bat lehortarazi zu- ten. Ez- tandaren ondorioz Na- bor Garciaren etxebizitzak kalte ugari izan bazituen ere, enbaxadoreak eta bere fami- liak ez zuten inolako kalterik izan. Poliziak ez- t- anda gertatu aurretik enbaxadorearen etxe- an agertutako emakume bat atxilotu zuen. Emakumeak bortxaketa jasan zuela esan eta bapatean harrapatu zituen ber- tan zeuden zaindaria- k.

Frantziako enbaxadan, be- r- riz, bomba bat lehortu eta aparkalekuan zeuden bi auto erabat suntsiturik geratu ziren.